

## OIHENART, EUSKAL GRAMATIKARIEN AITZINDARIA

Beñat OIHARTZABAL  
U.R.A. 1055  
C.N.R.S., Bordeaux III

Galdegiten delarik noizkoa den lehenbiziko euskal gramatika, edo nor izan zen lehenbiziko euskal gramatikaria, ihardespren desberdinak ematen ohi dira: gramatika denaz bezainbatean, P. Urtek 1712. urtearen inguruan Ingalaterran idatzi zuen, baina abantzu bi mende geroago publikatuko zen *Grammaire Cantabrique Basque* delakoa aipatzen ohi baita, eta bereziki hain famatua izanen zen M. Larramendiren *Arte de la Lengua Vascongada*, 1729.ekoa, azken hau izan baitzen lehen euskal gramatika argitara emana.

Ordean lehen gramatikariaren aipatzeko orduan, ez ohi dira ez Urte eta ez Larramendi izendatzen, ez eta ikasbide gisako lanei hatsarrea eman zieten Voltaire (= 1620) edo Micoleta [1653], edo oraino hamazazpigarren mendearen erdialde horretan bereziki idatzi ziren, baina guganaino iritsi ez diren gramatika lan batzuen egileak ere, hala nola J. Bela, S. Pouvreau, edo D. Bidegaray (Oyharçabal 1989). Alabaina, zuzenez, aitzinago jo behar da euskal gramatikagintzaren lehenbiziko urratsen hatzen aurkitzeko, aipatu azken autore horiek baino mende laurdentsu bat lehenago, biltzar honetan omeneratzen dugun A. Oihenartek baitzeukan jadanik gramatika sail horretan zerbait idatzirik eta argitara emanik, arras egoki baita —geroztik haren obraren parte hori ahantzia izan bada ere— euskal gramatikarien aitzindari gisa ezagut dezagun, Unamuno gazteak bere tesia idazterakoan [1884] jada egin zuen bezala<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Larramendi baino lehenagoko gramatikariez ari delarik Unamunok (1884/1986: I 19) Oihenarten *Notitia*-ko 14. kapitulua aipatzen du baina menturaz aurretik jadanik beste arte bat ere idatzia izan zela aditzera ematen du Isastiren lekukotasuna ekarriz (*Compendio historial dela M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa* 1 lib. 13. kap. 7. §, 1625). Voltaire eta Micoletaren ikasbideek gramatikazko paradigma batzuk eskaintzen badituzte ere (lehenak badu kapitulu bat *Spece de grammaire* deitua (1620: 1-14), eta bigarrenak ere *xauñ* hitzaren deklinabidea, eta aditz-jokabide batzuk ematen ditu ([1653]: I 3-10), ez dute aski hedadurarik eta barnatasunik, egiazko gramatikazko idazlan gisa har ditzagun hemen, eta Oihenarten lanarekin —azken hau ere arras laburra izanagatik— gonpara ahal ditzagun.

Oihenart historialari, zuhur-hitz eta atsotitz biltzaile, hitz neurtzaile eta hitz-neurgintzaren arau emaille gisa ezaguna genuen. Baina gramatikari gisa ere ote? Ba ote da hark utzi gramatikazko libururik edo esku-izkriburik? Ez, oraingoz dakigunaz bederen. Izan ote da beraz ondoko mendeetan gramatkaririk Oihenartenganako bere zorra aitortu duenik? Ez. Urtek ez dio deus ere hartaz, eta Larramendik, halaber, ez ditu batere aipatzen haren azterbideak bere gramatikan<sup>2</sup>. Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeko gramatikarien artean ere, Saroihandik 1923.eko Euskal Biltzarrean irakurtu zuen idazkia kanpo<sup>3</sup>, aipamen guti kausituko da Oihenarten gramatikazko lanaz. Bada, galda diezaguke batek, gauzak horrela direlarik, nolatan hura egin daiteke euskal gramatikarien aitzindari? Berehala ikusiko dugu nola.

Egia da Oihenartek ez zuela gramatikazko obra berezirik idatzi. Holako lanen berri ez dakigu bederen. Ordean, *Notitia Utriusque Vasconiae* delako haren liburuan badira bi kapitulu —bat bereziki— euskal gramatika zuzenki hunkitzen dutenak. Lehena, 1. liburuko hamaikagarren kapitulua, euskarazko izenen eta izenondoen ondarrean kausitzen den formaz idatzia da. Bigarrena, berriz, hamalagarren kapitulua, ez dagokio pondu berezi bati, baizik eta euskararen gramatikaren, zuzenkiago errateko, morfologiaren aurkezpen orokorrari, hartan deklinabidea eta aditz jokadura oroz gainerik aurkeztuak izanik. Kapitulu horren tituluak honelaxe dio: *Euskal mintzairaren berezitasun batzuez*,

<sup>2</sup> Larramendik noizbait *Notitia*-ren berri jakin zuen eta Oihenarten izena ere eman zuen bere hiztegi aitzin solas famatuan erdaraz euskarari buruz idatzi zuten idazleen artean. Hala ere, iduri luke bere gramatika egin zuenean ez zuela oraino irakurtu, ez baitu han ez aipatzen, ez baliatzen ere. Batek pentsa dezake alabaina, Larramendik *Notitia*-ko 14. kapitulua irakurtu izan balu mugagabearen nozioa onaturik artikulua azterketa bestela eginen zuela bere *Arte*-n. Eta hala-hala, kasu sistemaren azterketa ere. Ala iberismoaren eta baskonismoaren teorien arteko kontraktasunean zetzan etsaigoa politikoak esplikatzen ote du isiltasun hori? Ezin esan daiteke arras ezinezkoa dela hori (eta ohargarria da ez duela aipatzen oker ez banago ez atsotitz biltzaile ez eta olerkaria ere), baina, halere, gogorsko zaigu guri holakorik sinestea, besteak beste, ez baitirudi Larramendiren maneretan zela kontrakoen molde horretan gudukatzea. Buruz-burukako garaitzak maiteago zituzkeen, gisa horretako ez-galtzeak baino. Zergatik, bada, haren hitza dudatan jar, dioelarik *Arte*-aren aitzin solasean *no he tenido guia, que vaya adelante, y me dirija, me ha preciso romper el camino, ...?*

<sup>3</sup> Saroihandy bere idazlanean, Oihenartek *Notitia* liburuen lehen argitalpenean eta olerkien aitzin solasean proposatu azterbideen biltzera saiatu zen. Oro har argiro egiten du aurkezpena, orduan batere landu gabe zegoen euskal gramatikagintzaren historia kontuan hartu gabe, naski. Ondorioz, zenbaitetan irakurtzaileak ez daki bilduman agertzen diren kontzeptuak norenak diren: Saroihandirenak ala Oihenartenak. Adibidez, transsitibotasunarena. Saroihandyri jarraikiz (§ 35 eta 37) iduri luke Oihenartek kontzeptu hori, gaur maiz egiten den moduan, erran nahi baitu ergatiboa dakarten aditzei aplikatzeko bazerabilela. Baina erran gabe doa Oihenartek ez zuela hola erabiltzen, eta transsitibo hitzari arras beste erran-nahia ematen ziola. Beste batzuetan bermoldaketa hori interpretazioa baino urrunago doa. Adibidez, Oihenartek gizonarik eta emaztearik bezalako formak ematen dituela aditzera ematen du Saroihandy (§ 26). Oihenartek ez zuen, ordean, holako forma desgramatikalik eskaini eredu zko paradigmata. Are gehiago dena, haren argibideak irakurturik argi eta garbi uler daiteke zergatik ez den holakorik agertzen euskaraz: kasu negatiboa artikuluaekin ez daitekeelakotz ager hain zuzen ere.

eta euskal hitzen deklinatzeko eta konjugatzeko bidez. Derragun, bada, hango lerro horiek irakurtzen dituen egungo gramatikaria baldituzik gelditzen dela sindiku izanak hamabost aurkezpen horretan erakusten duen argitasun eta zorroztasuna ikusirik.

Gramatika kontuetan beste jakintza sailetan bezala lanen balioa garaiko mota bereko obren arabera eta, halaber, jakintza sail horrek ondotik segitu bideen arabera preziatu behar da. Oihenarten lanaren balioaren neurtzeko, beraz, euskal gramatikaren historiografiaren perspektiban eman behar da, hastapeneko urratsei dagokienaz Larramendiren lana dugularik erreferentzia nagusi, ezin baztertuzkoa. Horra zergatik Oihenartek deklinabideari buruz idatzi zituenak aztertzerakoan, ondotikako gramatikarien eta bereziki Larramendiren ideiak ere gogoraziko ditugun eta Oihenartenekin kontrastean bezala jarriko, ikusiko baitugu horrela pondu askotan ez soilki lehenago, baina begi zorrotzagoz eta molde egokiagoan ere ikertu zuela zuberotar historialariak euskararen gramatika, haren ondotikakoei baino.

Hasi baino lehenago ohar bat baliatuko dugun erreferentziatzeko testuaz. Dakigun bezala bi argitalpen izan zituen *Notitia* liburuak hamazazpigarren mendean Oihenart bizi zenean. Lehena 1638.ean eta bigarrena 1656.ean. Bi argitalpenen artean oro-har diferentzia handi-handirik ez den arren, ohargarria da arte horretan gehienik aldatua izan den kapitulu hamalagarrena izan dela, erran nahi baitu gramatikari dagokion hura bera (Goyenche, 1992, Larre 1992). Egia erran, Oihenarten azterkabidearen funtsa ez da gantiatu argitalpen batetik bestera, baina osoagoa da 14. kapitulu hori 1656.eko argitalpenean, besteak beste sartarazi baitzituen hartan Oihenartek hiru azpi-atal berri: lehena izenordainez (*De Pronomine*), bigarrena deklina-ezinezkoek (*De Indeclinabilibus*), eta hirugarrena bertsugintzako silaba-neurketaz (*De syllabarum quantitate*). Bestalde aditz jokaduraren aurkezpena ere osatu, hobekitu, eta berriz antolatu zuen. Zer nahi den ere, Oihenartek kapitulu horri holako aldakuntzen ekartzeak gai horrek harentzat garrantzi zerbait bazuela, eta behar bezala eta artoski landu gogo zuela ere erakustera ematen digu. Aurkezpen honetan lehen edizioa baliatuko dugu aldakuntzarik gabe egon diren gaien aipatzeko, eta bigarrena, berriz, baina beti seinalatuz, berrituak izan diren ponduen erabiltzeko.

Zernahi gisaz, ez ditugu Oihenartek azterkatu morfologiatzeko arazo guziak aipatuko, luzeegi bailihoaguke. Aditzaren morfologiari dagokiona bereziki ez dugu hunkiko hemen, nahiz esperantza dugun laster beste lan batean egiten ahalko dugula. Hona, beraz, Oihenarten lana 17. eta 18. mendeko euskal gramatikarienekin erkatuz, zein izanen diren hemen ikertuko ditugun ponduak: 1. Substantiboen ondarreko **-a(k)** delakoaren kontua; 2. Mugatugabetasuna; 3. Kasu gramatikazkoak eta bereziki ergatibitatea; 4. Egun adberbialak direla erraten dugun kasuak.

## 1. EUSKARAZKO IZENEN ONDARREKO FORMARI BURUZKO EZTABAIDA

Lehen erran dugun bezala, *Notitia*-ko 1. liburuko 11. kapitulua arazo berezi bati eskaini zion Oihenartek, hartan auzitan jartzen baitzuen zenbait autorek euskarazko izenen ondarreko formaz plazaratu jeneralizazio bat, ordukotz aski zabaldua eta ondotik ere franko denbora luze iraunen zuena. Kapituluaren tituluak honela dio: *Euskaldunen mintzairaz, eta egia denetz, hartan izenak a-z bururatzen direla singularrean, eta ac-ez pluralean.*

Oihenartek eztabaidatu nahi zuen ustearen arabera, beraz, euskal izenek eta izenondoek ondarrean -a behar zuten singularrean, eta -ak pluralean. Azterketa horren alde agertu ziren hiru idazle aipatu ondoan: Lucio Marineo Siculo, Paul Merula eta Esteban Garibay, haien baieztapena zorrozki gezurtatu eta gaitzetsi zuen:

«Marineo Siculok badio hizkuntza horretako hitz gehienak a-z bururatzen direla singularrean, eta ac-ez pluralean (...). Maku-rrean da, ezen batzuetan a letra singularrean, eta ac silaba pluralean, euskal hitzen ondarrean artikulua gisa baliatzen dira (...). Horrela **guiçon** hitzak berez **hominem** erran nahi du. Baina artikuluaekin erran nahi bada, grekoek bezala, **ton andra**, frantsesek bezala, **l'homme**, espainolek bezala, **el hombre**, **guiçona** erran behar da, eta pluralean **guiçonac**, erran nahi baitu, grekoz **oi andrez**, frantsesez **les hommes**, eta espainolez **los hombres**. (1638:36- P7)»

Menturaz zenbaiti *naïveté* gisako zerbait idurituko zaio puntu hau. Baina ez zen batere hala agertzen duela lau mende, ez eta ondoko garaietan ere, Oihenartek horretaz idatzi zuen baino 90 urte geroago pondu horren berritiz finkatzea behartu baitzitzaion Larramendiri (Oihenart aipatu gabe, haatik, ez baitzukeen oraino haren lana irakurtua, ik. 2. oharra). Are gehiago 19. mendean oraino aski zabaldua bide zen delako ustea, Darrigolek (1827) *cette persuasion commune que tous les mots basques finissent en -a* aipatzen baitzuen.

Uste dut, komeni den arazoño honetaz zerbait gehiago erran dezagun, zeren -a ondarreko teoriaren alde —azken ele hori itsasoz haraindian egiten duten modu zabalean erabiltzera haizu banaiz hemen— agertu direnetan, ez baitira soilik euskara ez zekiten autore arrotzak aurkitzen, edo euskararen gramatika iragaitz bezala ikertu zuketan Garibay-ren iduriko euskaldun idazleak, Oihenartek bere garaian uste izan zuen bezala<sup>4</sup>. Alabaina Larramendik

<sup>4</sup> Halere Garibay-ren ohar linguistikoak ez dira gutiestekoak eta badirudi Nebrija-ren gramatikaren berri ere bazekiela (Caro Baroja, 1972:82). Zer nahi den ere hemen aipu dugun arazo horretan Garibayren kasua berezia da. Alde batetik hauxe zioen: «Es cosa de notar en esta lengua, que todos los nombres comunes que no sean propios se acaban en singular en -A y en plural en AC siendo esta regla tan general, que no padece escepcion alguna (1571:77.o.)». Baina bestaldetik Zubiaurrek (1990:190-191) oharatzen duen bezala, Garibayk euskal erretrauk hitzez-hitz itzultzen dituelarik, badirudi argi eta garbi ikusten duela ondar hizki horiei espainoleko artikulua dagokiela.

bere gramatika idatzi arteko idazle ia guziak agertu dira teoria horren —edo honetarik sortu aldaera baten— alde: bai, Micoleta, Etcheberri Sarakoa eta Urte bezalako tokiko euskalariak, eta bai euskara gutik bezala ikasi ondoan euskal gramatika bat idazten hasia zen S. Pouvreau [1660] bezalako autore bat ere (nahiz honen kasuan teoriak, elementu deskriptibo berak atxikiz, arras beste itxura bat hartu zuen). Are gehiago bide seguretik badakigu batzuek bederen Oihenarten oharra ezagutzen zutela, eta beraz haren erranen gatik agertu direla teoria haren alde. Hona zer zioen, adibidez, Etcheberrik:

«Oraino eskuarak badu bertze diferentzia molde bat, bertze hizkuntzek ez dutena (Oihenartok gure eskualdunak zernahi erran dezan arren, lib. 1 cap. XI p. 35), zeren izen gehienei ematen baitiote akhabantza a letra guztietarik lehenbizikoa, naturalena, eta gozoena (*Lan hautatuak*, 97- 98. o.)»

Nola konpreni daiteke jokabide hori? Zergatik autore horiek lehenagoko ideari jarraiki nahi izan zitzaizkion? Uste dut bi esplikabide mota eman daitezkeen. Lehena, orduko gramatikagintzaren egoeran funtsatzen da, bigarrena apologiazko ikusmoldeetan.

Larramendik eta Darrigolek -a ondarrekoaren teoriak mintzo direlarik azpimarkatzen duten bezala, euskaldunek gauzak izendatzen ditugularik, edo zuzenean, edo berdin erdal hitz baten itzulpena emanez, hitzari artikulua eratzikitzen ohi diogu. Luzaz eta luzaz, adibidez, euskal hiztegieta euskal hitzak —izenak edo izenondoak— artikulua zutela emanak izan dira hala sarreretan nola adierazpenetan. Adibidez, Lécuseren (1828) gramatikan oraino hitzak itxura horretan agertzen dira, hala nola Leizarragaren hiztegi laburrean, bai eta Landucchio eta Pouvreau-renetan ere. Horrela ematen ziren, halaber, Voltoireren (= 1620) eta Micoletaren [1653] ikasbideetan, bai eta Urteren gramatikan [1712] eta Harriet notarioarenean (1741) ere. Larramendik ere, -a ondarrekoaren teoria gaitzetsi zuen arren, artikuluekin eman zituen erdal hitzen euskarazko baliokideak bere hiztegi handian, euskaldunen egiteko ara natural eta jatorrari jarraikiz, beraz. Berdin egiten zuen Oihenartek meta-hizkuntzako aipu gisa zerabiltzalarik. Halatan guziz gisakoa zen, bereziki euskaldun ez zenarentzat, baina ez bakarrik harentzat, mintzaira horretako hitzak -a(k) ondarrean zutela ager zitezen.

Horiek hola, ongi ezaguna den pondu hori oraino barnago zilatu behar dela uste dut, ez baita dudarik -a ondarrekoaren teoriaren iraupena, artikulua nozioak garai hartan sortarazten zituen anbiguitateei ere darraiel, partez bederen. Bi motatako anbiguitateak aipa daitezke.

Alde batetik, euskaraz artikulua kasu marken itxuran agertzen da, eta batzuetan kasu markarekin amalgamatua, harekin bat egina edo berdin hartan urtua bezala. Halatan oso zail gertatzen zaio -Ø forma duen kasu-markaren noziorik ez duenari artikulua identifikatzea, harentzat -a(k) bukaera, hitzak nominatiboan duen itxurari baitagokio, hala nola latinez izenak nominatiboaren

ondarkiarekin ematen baitira. Ordean, zero marka duen kasuaren teoria, edo kasu markatugabearen teoria, Astarloak sarrarazi zuen euskal gramatikagintzan (lehenago Oihenartek inplizituki baliatu bazuen ere, ik. 6. eta 10. oharrak). Nekez, beraz, balia zekizkiekeen aurreko autoreei azterbide horrek eskaini bideak.

Egia da Larramendik, zero kasuaren azterkabidea erabili gabe ere, hitzen forma behar bezala mugatzen zuela, ondarkiak eta hitzak berak elkarretarik bereiziz (*etxe/a*). Ordean, horren egiteko gaitza egiazki sendatu gabe, beste norabait, urrunxeago, eramaten zuen. Alabaina hark artikulua eta hitza nahasteko orde, artikulua eta kasu marka nahasten zituen, batere elkarretarik bereizi gabe. Harentzat artikulua ez zen gaur egun deitura horren pean izendatzen dugun morfema, baizik ere gaur egun Euskalzaindiaren gramatikan ondarkia deitzen dena; horrela Larramendirentzat *-á*, *-ák*, eta *-ik* eta *-rik* artikulua ziren : haren arabera nominatiboan kausitzen ahal ziren artikulua (1729:3 eta 8). Ikusmolde horretan artikulua soilik baitira deklinatzen, hitzaren forma agerian gelditzen da. Ordean, kasu marka bezainbat artikulua, eta are gehiago ere Larramendiren aztermoldean, kondatzen da.

Oihenarten eta Larramendiren garaien artean bestelako azterkabideak proposatu baitziren, Pouvrearena [1660] bereziki aipa daiteke. Latin ereduari hurbiletik jarraitzen zitzaion eredu horretan, euskarazko hitzen forma nominatiboan zutena baitzen, *-a* ondarrekoa nominatibo singularren kasu markari zegokion. Bukaerako *-a(k)* ez zen egiazki hitzaren parte bat, beraz, ikusmolde horretan, baina nominatiboaren kasu marka. Alabaina, nola zero kasu markaren teoriarik ez baitzen, eta nola iduri baitzuen hitzek beti *-a(k)* bazutela ondarrean, beste markarik ez zutenean, hitzak nominatiboan zirela pentsatzea bidezkoa zen. Bestalde, gogoan atxiki behar da Pouvrearentzat —Oihenartentzat bezala, gero erakutsiko dugun bezala— hitz substantiboak, izenak eta izenondoak, zirela deklinatzen euskarari, eta ez izen sintagma; hots, puntu horretan ere latin ereduari jarraitzen zitzaion euskara. Buruhaustek, naski, ondarreko *-a(k)* hori agertzen ez zelarik sortzen ziren, erran nahi baitu izenaren ondotik ondarkia har zezakeen beste hitz bat (izenondo edo zenbatzailea) bazelarik.

Pouvreau-k, alabaina, izen sintagma azterkatzen zuelarik behar zuen nola-bait argitu, zergatik ardatz izenek, izenondo bat edo **bat** edo **batzu** bezalako zenbatzaile bat jarraitzen zitzaielarik, *-a* ondarrekoa galtzen zuten, zergatik *gizon handia* eta ez *\*gizona handia* erraten zen, zergatik *gizon bat*, eta ez *\*gizona bat* (berriz ere, ez ahantz harentzat holako sintagmetan *gizon hitza* deklinatua dela, eta kasu marka dakarrela). Bada, erantzuteko, holako ingurumetan kasu markaren erorketa zekarren morfologiazko ezabaketa erregela bat eratu zuen:

«Le substantif précède toujours l'adjectif primitif, & le plus souvent le nominatif du substantif perd sa terminaison *-a*. (...) Les mots **bat** un **batzu** quelques uns, (...) et autres semblables

qui se mettent toujours après les noms en la suite du discours, leur font perdre la terminaison du nominatif et des autres cas.»

Ikusten den bezala -a marka nominatiboari dagokion marka da Pouvreauk aurkeztu zuen azterketa horretan. Ez, beraz, egiazki hitzaren parte bat, nahiz izendatzerakoan beti itxura horretan agertzen diren hitzak. Artikuluaren eta kasu markaren nahasketa hori Larramendiren gramatikan ere agertzen dela ikusi dugu gorago, baina arras beste manera batean, honek, ondarkiaren nozio morfologikoa izanik, ongi bereizten baitzituen elkarretarik hitza eta honi eraxikitzen zaion ondarkia. Oihenartek, aitzitik, deklinagaiaren kontzepzio sintaktiko garbirik ez izanarren, arras ongi bereizten zituen, oraingo hitzetan erranez, bai hitzak eta ondarkiak (Larramendik bezala), eta bai azken honen barnean artikulua eta kasu marka (Larramendik egin ez zuena).

Bigarren nahasbidea, artikuluz zenbait autorek zuten kontzepzio funtzionalari zerraion. Alabaina, 17. mendeko asko gramatikatan, bereziki irakaskintzaren tradizio enpirikoari jarraikitzen zitzaizkionetan (ikus adibidez Filz 1669), artikulua modu pragmatiko batean adierazia zen, eta beraz frantsesaren edo espainolaren kasuan, genero markatzaile gisa aurkeztua zen. Euskaraz, ordean, genero oposaketarik ez baita hitzetan, nekez balia zitekeen artikuluen nozio molde horretakorik. Hortik, beraz, euskal hitzetan artikulurik ez zelako ondorioa. Azterbide honen adibiderik garbiena P. Urtek ematen digu, honela dioelarik:

«Dans la langue cantabrique il n'y a point d'articles pour distinguer les genres parce que dans les noms il n'y a point de différence de genre masculin, de féminin ni de neutre. ([1712]/1896-1900:56)»

Ikus daiteke, horretaz, -a ondarrekoaren teoria ez zela, ez soilki bederen, ikusmolde kandido baten adierazpena, baina gramatikazko azterkabide zenbaiten ondorioa ere zela autore batzuen kasuan bederen.

Orain, -a(k) ondarkiaren azterketa oztopatzen zuen beste mota bateko ideia bat aipatuko dugu, azken hau, bitxi bada bitxi gaurko irakurtzailearentzat, apologiari eta hizkuntzaren ohore eta abantailei baitagokie. Baina esplika dezagun hobeki pondu hau.

Hastean bagenuen, beraz, euskarari buruzko uste bat, 16. mendean jadanik agertzen dena, eta -a ondarrekoaren teoriak biltzen zuena hain zuzen ere. Berez, ez datxikio uste horri, ez konotazio onik, ez txarrik. Hala eta guztiz ere, euskararen apologia egui gogo zutenak, pondu horretan oinarritu ziren euskararen aspaldikotasunaren eta jatortasunaren alde mintzatzeko. Alabaina -a soinua, naturalena eta nolabait esateko primitiboena zela uste baitzuten orduko hizkuntza ikertzaile anitzek, euskarak soinu horri toki berezia eskainiz, nolabait bere zahartasuna agerian ematen zuela pentsatu zuen zenbait euskalarik

ere. Entzun dezagun Etcheberrik zer dioen a letraz, garai haietan zabalduak ziren zenbait ideiaz baliaturik<sup>5</sup>:

«... letra guztietarik lehenbizikoa, naturalena, eta gozoena, gizonak ere lehenbizirik hitzez moldatzen duena; ezen ikhusten dugu, nola haur enozentak hitzen moldatzen hasten direnean, lehenbizirik hasten direla erraiten A, A, A, zeina bertze letren laguntzarik gabe hain eztiki pronuntziatzen, eta deklaritzen baita: non mutuek ere hunen bidez, eta kheinuekin batean emaiten baitarozkigute aditzera asko gauza, zeinak hainitz hitzez pena baitkenduke adiarazteko.» (*Lan hautatuak*, 98. o.)

Etcheberrirentzat euskal hitzek -a soinuari ematen zioten garrantzia, euskararen zahartasunaren eta jatortasunaren ondorioa baitzen, horretaz baliatzen zen *eskuara hitzen akhabantzetan ere abantaillatuena dela* erakusteko. Hitz batez, mintzairaren nobleziaren seinale bat ikusten zuen euskararen uestezko ezaugarri horretan, hots, euskara *bertze hitzkuuntzetarik ethorkirik gabekoa* zela baieztatzeko argumentu bat.

Ordean, Oihenartek -a ondarrekoaren teoriaren ahulezia enpirikoki agerian eman zuelarik, Etcheberrik ez zituen haren arrazoinak kontuan hartu nahi izan, iduritzen baitzitzaiokeen euskara gutietsiko zuela orduan, eta haren ezaugarri abantailos bati bidegabekeriaz uko eginen ziola. Ohargarri da, alabaina, Etcheberrik Oihenarten argumentuak ez zituela eztaibadatu, ez egiazki beren mamian aipatu ere, baina mespretxuzko *Oihenartok zer nahi erran dezan arren* batez baztertu zuela haren ikusmoldea.

## 2. DEKLINABIDE MUGAGABEA OIHENARTEN LANEAN

Gauza ezaguna da Darrigolen lanaren (1827) ondotik sartu zela euskal gramatikagintzan deklinabide mugagabearen kontzeptua, eta Darrigolek berak ere pondu horretan bide urratzaile izan zela uste izan zuen. Bizkitartean ezin erran daiteke hura baino lehenago ideia bera inork ez zuela izan. Alabaina, Michelenak (1973) gogorarazi bezala, ideia hori jada aipatu zuen Humboldték Astarloaren lanetan aurkitu ondoan iduriz; ikus Garatek (1933) bildu Humboldtén gramatikazko izkribuak, eta, Astarloak gai horretaz egin azterketez, Alberdiren (1989) lana.

<sup>5</sup> Kontuan har bedi alabaina Etcheberrik a soinuaz zioena ez zuela berak bere burutik asmatu, aski ikusmolde zabaldua baitzen hori, eta aspaldidanik 18. mendean. Etcheberri baino berantago ere aurkitzen dira holako arrazoinamenduak eta Astarloak Court de Gibelin frantsesaren lanen ildotik oraindik urrunago eramanen ditu gauzak. Euskalarien eremutik kanpo ere Diderot bat Entziklopediako *langue* artikuluan, arras beste testuinguru batean a-rekilako silaben zahartasunaz ariko da frogabidearen ahulaz susmorik izan gabe iduriz. Darrigolek (1827:48) ere, Etcheberrik eta bestek defenditu ideia horren oihartzuna dakarkigu.



Baina zuzenez oraino aitzinago joan behar da mugatugabetasunaren kontzeptuaren aurkitzeko, hain zuzen ere Oihenartek zehatz-mehatz agerian eman baitzuen deklinabide mugatugabea, molderik garbienean, deklinabide artikulugabea deitzen zuelarik:

«Izenak bi moldetan deklinatzen dira, batean artikulurik gabe, bestean, artikularekin: bata artikuluduna [*bitzez bitz*: artikulatua] deitzen dugu, eta bestea artikulugabekoa. Artikulugabekoak numero bat baizik ez du, aditzari edo izenondoari, berdin singularrean edo pluralean, lotzen baitzaio. (...) Artikuludunak bi numero ditu, singularrekoa eta pluralekoa. (1638:57)»

Egia erran, neke da ulertzea zergatik Pouvreau ez zen bide beretik abiatu, alta Larramendik ez bezala Oihenarten lanaren berri bazekikeelarik honek, bere gramatikaren idazten hasi zenean. Iduri luke, Pouvreau, gorago erran dugun bezala, ordu arte kasik denek onartu zuten -a ondarrekoaren teoriari jarraiki nahi izan zitzaiola, gisa horretan latin eredia segitzeaz beste biderik ez baitzizaion gelditzen. Halatan artikulua kontzeptuari atea hetsi zion, eta ondorioz artikulugabetasunari ere bai.

Larramendik, aitzitik, ongi bereizten zituen elkarretarik hitzak eta deklinabideko ondarkiak, eta beraz errazago gertatu behar zitzaion hari Oihenarten azterbidea ontzat ematea. Bizkitartean ez da horrela gertatu, eta horrengatik pentsatzen dut nik, Oihenarten *Notitia* ez zuela irakurtu 1729.ean Larramendik, iduritzen baitzait egin izan balu artikulua nozioa bertze gisaz erabiliko zuela bere gramatikan; (gauza bera erranen dugu urrunago kasu paradigmaz aritzean).

Erran bezala, Oihenartek hitza eta ondarkia, eta ondarkiaren barnean artikulua eta kasu marka, ongi bereizten zituen. Larramendik, berriz, hitza ondarkitik bereziarren, artikulua kasu markarekin nahasten zuen. Alabaina, mugatugabearen kontzepturik ez izanik<sup>6</sup>, ber-denboran bazioen artikulua soilik deklinatzen zirela (eta ez hitzak, artikulua izen sintagmei lotzen zitzaiola argi baitzeukan), eta kasu bakoitza artikuluen bidez gauzatzen zela<sup>7</sup>. Haren

<sup>6</sup> Larramendik ez bezala, ordean, Oihenartek kasu zuzenaren bidez (ik. 10. oharra) zero markaren kontzeptua bazuen, baina ez molde argi batean, zeren ez baitzuen batere markarik ez izatetik bereizten. Horrengatik **gizon** **ona** sintagman **gizon** nominatibo mugagabearen zela erran zezakeen, hala nola ondarkiak deskribatzean datibo marka kasu zuzenari eranstean zitzaiola baieztatu baitzezakeen. Astarloa izanzen da Oihenarten ondotik pondu horren hobeki ulertzera lagunduko duen lehenbizikoa nominatiboaren marka (edo *caracteristica* haren hitzaren erabiltzeko), *el no tener* dela erranen duelarik (1883:675).

<sup>7</sup> Honela zioen alde batetik: «El artículo de todo nombre apelativo se declina assi [eta ondarkien zerrenda ematen zuen] (3.o.), eta beste aldetik kasu bakoitza aipatzean, ondarki forma bakoitza artikulatu deitzen zuen: el nominativo de singular tiene dos artículos a, ac (...) el genitivo tiene dos artículos (...) quatro artículos pongo el ablativo ... (4-5.o.)», hots, ondarki bakoitzari artikulatu erraten zion. Larramendiren gramatikaz, ikus Alegria (1989) eta Gómez (1991).

arabera, beraz, kasu bakoitzaren itxura desberdinei zegozkien artikulua. Horrengatik oso-oso nahasi eta desegoki emanik agertzen dira haren argibideak, artikulurik gabe egiten den izen berezien deklinabideá aurkezten duelarik<sup>8</sup>.

Ohargarria da deklinabideko paradigma artikulugabea aipatzean, ongi azpimarkatzen duela Oihenartek, numero oposaketa artikulua bidez gauzaten dela eta, beraz, ez dela numero oposaketarik agertzen artikulugabeko deklinabidean (aditz komunztadura singularrean nahiz pluralean ager daitekeela ohartarazirik).

Zorroztasun hori are estonagarriagoa da kontuan hartzen badugu Oihenartek izen sintagmaren deklinamoldea partez baizik ez zuela konprenitu. Alabaina Oihenartentzat euskarak, latinak bezala, izen sintagmako osagai guzietan agertarazten du kasua, ez sintagmako azken osagai bakarrik. Nahiz ageri den arazo hori ez zuela sobera zilatatu, Oihenartek, ondotik Pouvreau-k edo Urtek bezala, ez du seinalatzen ondarkia sintagmetako azken osagaiari baizik ez zaiola eransten, eta mugatugabeak komunztaduraren aldetik duen anbiguitateaz baliatzen da, **gizon hura/haiek** bezalako sintagma nominatiboak aztertzerakoan, haietan **gizon** izena artikulugabeko nominatiboan deklinatua dela errateko. Mugatugabeak singularreko nahiz pluraleko komunztadura ekar baitezake, horrela esplikatzeko du izenaren ondotik heldu den izenondoa (erakuslea haren adibidean) singularrean nahiz pluralean izan daitekeela.

Hona beraz, eskema batean laburbildurik, nola aurkezten zuen Oihenartek izen sintagmaren deklinabidea, eta izen ardatzaren eta izenondoaren arteko komunztadura; (gogoan izan harentzat artikulugabeko deklinabideak bai singularreantzat eta bai pluralarentzat balio duela komunztadurari dagokionaz).

Ez da dudarik, pondu horretan zorrozkiago jokatuko zela Larramendi (ik. Gómez 1991), eta bide urratzaile gertatu zela euskal gramatikagintzan (hain segur espainolaren egitura latinarena baino gehiago baliatu baitzuen pondu horretan euskararen azterkatzeko):

«... aunque se multipliquen los adjetivos, no por eso se multiplican los artículos, sino que uno basta para el regimen de

<sup>8</sup> Hona zer dioen Larramendik *De los nombres propios y de su declinación* kapituluan: «Los propios de hombres son en dos maneras, unos, que en Romance se acaban en vocal *Pedro, Pablo, Antonio*, y otros en consonante *Juan, Martin, Felix*. La declinación de los primeros es deste modo; para los verbos neutros no añade nada el nominativo sino que la *o* final sirve de artículo como en los apelativos en *á*, v.g. *Pedro dator, Pablo dirudi* para los activos se añade por artículo una *c* como *Pedroc dio, Pabloc il nau*. En los demas casos sirve el artículo común, perdiendo solamente la *a* inicial. v.g. *Pédroren, Pédrori Pédrorentzat* &c y (...) La declinación de los segundos es como se sigue. Para los verbos el consonante ultime sirve de artículo, sin añadir nada, *Martin gaisto-á da, Juan il omen da*: pero siguiendose verbo activo, añade el nominativo por artículo el *ec. Martinec iltzen nau, Juánec ecarri dit*, (1729.18-19).»

todos, y esse siempre pospuesto al ultimo, v. g. *guizón edér, galant-á*. Demanera, que como en Romance un mismo artículo rige muchos nombres, *la agua clara, limpia, delgada*, sin repetirse el artículo *la agua; la clara, la limpia*, assi tambien sucede en el Bascuenze. (1729:15)»

Horiek horrela direla, Oihenartek eskaini zuen lehen aldikotz gaur egun mugatugabea deitzen ohi dugun deklinabideko ondarkien paradigma berezia. Darrigol eta Astarloa baino anitzez lehenago, beraz. Hona haren lanean nola agertzen den paradigma hori **gizon** izenarekin (ortografia gaurkotuz, baina Oihenartek kasuei eman izenak gordez, eta euskal itxuran ezarririk):

<i>Nominatiboa:</i>	<b>gizon</b>	
<i>Aktiboa:</i>	<b>gizonek</b>	
<i>Negatiboa:</i>	<b>gizonik</b>	
<i>Genitiboa:</i>	<b>gizonen</b>	
<i>Datiboa:</i>	<b>gizoni</b>	
<i>Ablatiboa:</i>	<b>gizonez</b>	(1638:59)

### 3. ERGATIBITATEAREN AZTERKETA OIHENARTEN GRAMATIKA LANEAN

Euskara ondoko hizkuntzetarik bereizten duten tipologiazko ezaugarrien artean ergatibitateari datxekiona bide da aipabide gehienik eman duena. Bada ikus dezagun nola behatu zion Oihenartek pondu horri euskararen kasu sistema aurkezterakoan.

Hemen ere azpimarkatzekoa da ondoko gramatikalariek baino azterketa anitzez zorrotzagoa egin zuela, harritzeko ere baita nola haren orduko sailkapenak azken urte hauetakoen idurikoak diren.

Lehenik derragun, Larramendi ez bezala, ez dela beldur Oihenart latinaren kasu sistematik urruntzeko. Jarrera oso moderno batean, formei eman nahi zien lehentasuna, haien arabera saiatu baitzen eungo kasu gramatikalak direlakoan sailkatzera<sup>9</sup>.

<sup>9</sup> Oihenartek berak ez du kasu gramatikalentzat azpisailik egiten. Gero (5) ikusiko dugunaz, gaur egun eta Darrigolez geroztik bereziki zerrendatzen diren kasu guzien artean, alde batetik deklinabideko kasuak (ikus testuan Oihenarten zerrenda) eta bestetik posposizio bereiz-ezinak (*postpositiones inseparabiles*) bereizten zituen.

Hona kasu bakoitzaz zer zioen:

— **Nominatiboa.** Euskarari buruz ari delarik, beti, morfologiako erran-nahi batekin erabiltzen du deitura hori (1638.eko argitaralpenean behinik behin)<sup>10</sup>; Oihenartentzat, beraz, marka bakarra dagokio euskaraz kasu horri. Marka horren formaz ari delarik zero markaren kontzeptua inplizituki erabiltzen du, kasu zuzenaren nozioa dela bide, bereziki).

— **Aktiboa.** **Agente** hitza ere erabiltzen du aktibo hitzaren ondoan, kasu horrek, nominatiboak ez bezala, marka propria duela (= agerikoa) azpimarkatuz: *-k*. Latinezko nominatiboari dagokiola erraten du haatik, aditz aktiboekin erabiltzen dela ongi zehaztatuz. Kasu berezizat dauka (ez nominatiboaren aldakitzat; ikus 10. oharra).

— **Datiboa.** Gaurko moduan erabiltzen du *-i* marka duen kasuaren izendatzeko, ez ondoko autoreek bezala, harekin batean, erran-nahi hurbila izan dezakeen *-entzat* ondarkia ere hor sartuz. Aitzitik, Urtek edo Larramendik datiboaren aldaki bat balitz bezala aurkezten zuten destinatiboaren marka.

— **Negatiboa.** Kasu **dubitatiboa** ere deitzen du. Nominatiboaren tokia har dezakeela azpimarratuz ere, kasu berezizat hartzen du (ez Astarloak eginen zuen bezala, nominatibo mugatugabearen marka gisa). Haren banaketa zehazten du: artikulugabeko formetan baizik ezin erabil daitekeela erranez, ezezkako, dudazko edo galderazko aditzekin. Bestalde kasu horrek partizipioei loturik duen betekizun berezia seinalatzen du, grekozko forma aoristo batzuei erreferentzia eginez.

Deiturei dagozkien gora-beherak bazterrean emanez, ikus daiteke gramatika modernoetan erabiltzen den sailkapenaren parekoa dela Oihenartena. Kontuan

<sup>10</sup> Alberdik (1992) dio Oihenartek nominatibo hitza nahasiki zerabilela erran nahi baitu morfologiako eta joskerazko balioak bereizi gabe. Oihenartek formulazio zailtasun batzuk izanik ere batzuetan —nola ez— ez dut uste hori egiazki hala den. Ez da dudarik, ene aburuz, bi balioak ongi bereitzen zituela Oihenartek (*Casus agendi est qui verbo actiuo praemittitur vice nominatitui*, 1638:58; ikus halaber latinarekilako gonbareketa egiten duen aipua urrunxeago testuan), eta nominatibo hitzari erran-nahi morfologikoa ematen ziola. Funtsean aski da haren taulei behatzea harentzat nominatibo deiturak erran-nahi morfologiako zuela ikusteko (gaur egun absolutu deitura erabiltzen den bezala). Badirudi Gorosterazuren itzulpenaren arabera ari izana dela Alberdi, eta beharbada hortik dator haren epaia. Oker ez banago, Oihenartek *nominatibo aktibo* deitura ez du behin ere erabiltzen lehen argitalpenean eta behin bakarrik bigarrenean *Formantur autem hi casus a recto hoc modo: Nominatiuus actiuus [actiuus* bakarrik, 1638.eko argitalpenean] *adiectâ consonante C in fine* (1656:58). Azken kasu honetan, iduritzen zait latinari erreferentzia eginez erabiltzen duela deitura, hala nola lerroaldi berean eta arrazoibide berari jarraikiz, 10 lerro geroago, kasu zeharkakoez mintzatuko baita datiboa, genitiboa eta ablatiboa bakarrik gogoan dituela (nominatiboarekin aktiboarekin eta negatiboarekin kontrastean emanez, hots), eta beraz latinaren sailkapena eta terminologia erabiliz hor ere, *casus obliqui formantur similiter à recto, scilicet genitiuus addita in fine syllaba en, datibus addita vocali j & ablatiuus addita consonante S* (1638/1656:59)). Baina pasarte horretaz kanpo ez da hola korik agertzen eta itzuri zitzaizkion formulazio anbiguo horientatik nehondik ere ez daiteke esan latineko nominatibo/oblikuo bereizketa euskararen itsuan aplikatu zuela Oihenartek, ez eta halaber nominatibo kontzeptua ere.

har, latineko kasu akusatiboa edo deikaria ez direla agertzen haren zerrendan, zeren haren erizpideari jarraikiz ez baitute tokirik euskararen gramatikan:

«Halaber, izenek ez dute akusatiborik, ez bokatiborik, haien ordezkasuzuzena erabiltzen baita. (1638:57)»

Gogoan har Larramendik ere akusatiboak eta deikariak nominatiboaren forma bera dutela erraten duela, baina ez du hortik ondorioz atera, eta hiru kasuak berezirik aurkezten ditu bere zerrendan homonimia kontua balitz bezala. Oihenartek berriz, formaren batasunari beti eutsiz, kasu akusatiboa eta deikaria euskararen kasu zerrendatik kentzen ditu, forma bakarrarentzat kasu bakarra —nominatiboa, haren hiztegia, absolutua ere erranen da hogeigarren mendearen bigarren parteko euskal tradizio berrituan— dela baieztatuz.

Gauza bera gertatzen da kasu aktiboarekin. Larramendik ere aditz aktiboekin subjektuari dagokion kasua berezia dela ikusten du (singularrean delarik bederen). Ordean, euskaraz subjektu singularrekoek aditzen arabera bi forma izan ditzaketela kontuan harturik ere, ez ditu bi kasu desberdin bereizten, eta bi forma desberdinak kasu bakarraren aldaki gisa aurkezten ditu. Oihenartek, aitzitik, alderantzizkoa egiten du. Formaren erizpideari lehentasuna emanaz nominatiboa (edo kasu zuzena) eta aktiboa (edo kasu agentea) elkarretarik bereizten ditu, kasu aktibo/ergatiboaren azterketa modernoetara emanaz.

Kasu horien erabilpenaz ematen dituen argibideetan ere oso ikusmolde zehatza erakusten du. Alabaina, haien agerpena bi erizpideren arabera mugatzen du: alde batetik, funtzio gramatikalaren arabera, eta bestetik aditzaren nolakotasunaren arabera. Horrela euskararentzat latinaren nominatiboari, erran nahi baitu subjektuari, dagozkion bi marka bereizten ditu: bata aditz aktiboekin erabiltzen dena, eta kasu agentea edo aktiboa deitzen duena, bestea aditz pasiboekin erabiltzen dena, hura nominatiboa edo kasu zuzena deitzen baitu. Oso argiki bereizten ditu beraz euskarazko subjektuek dituzten oinarrizko bi formak, eta alde horretarik euskarak latinak ez bezalako markabidea duela zorrozki zehazten du:

«Kasu agentea aditz aktiboekin nominatiboaren ordezkasuzuzena erabiltzen da. Adibidez: **homo** nominatiboa latinez aditz aktiboekin edo pasiboekin edo besteekin erabiltzen da; erraten dugu berdin **homo est** eta **homo facit**; ez ordean euskal mintzairan, ezen aditz pasibo edo substantiboarekin zuzeneko **guiçon** ematen da, eta erraten dugu **guiçon da, homo est**, baina aditz aktiboaren eraikiduran nominatiboa ordainkatzen duen berezko kasua eman behar zaio : eta ez da erran behar **guiçon eguiten du**, baina **guiçon-ac eguiten du**, erran nahi baitu **homo facit**. (1638:58)»

Aurkezpen hori ondoko gramatikariek eta bereziki Larramendik proposaturikoekin gonbaratzen denean, ez da dudarik Oihenartek gaurko ikusmoldean arabera abantaila handia ateratzen diela. Astarloa ([<1803]/1883) izanen da

ondotik egun kasu gramatikalak deitzen ditugun horiek, latin eredia bazterrean utzirik, modu horretan aurkeztuko dituen lehenbizikoa (ik. beherago). Baina honen lana ez baitzen 1883.a arte argitara emanen, Darrigolek (1827) sartaraziko zuen egiazki azterbide hori euskal gramatikagintzan, Oihenartek baino abantzu berrehun urte geroago, beraz.

Berriz ere, Larramendiren jokabidea ikusirik, zail egiten zaigu sinestea Oihenarten lana irakurtua zuela 1729.ean, pentsatzekoa baita orduan hartaz kontu handiago eginen zuela, eta probetxu gehiago aterako ere<sup>11</sup>. Menturaz Larramendientzat garaiko gramatikari askorentzat bezala, latineko kasuak unibertsalak ziren, espainolaren aurkezpenean ere baliatzen baitzituen. Orduan, nahiz teoria mailan bederen, ongi baino hobeki zekien hizkuntza bakoitzak —eta are euskarak— bere berezko jokabideak zituela (*el Bascuenze es una Lengua, que congenia poco con las otras* erran zuen bere aitzin solasean, *lo singular de su artificio* ere azpimarkaturik, hizkuntza 'pospositibo' zela ohartaraziz bereziki), euskararen artea moldatzerakoan, nahi eta ez, latin ereduaren arabera aurkeztu behar zuen deklinabidea.

Labur bildurik, hona Larramendik eta Oihenartek kasu gramatikalez proposatzen zuten sailkapena:

Oihenart:

- **nominatiboa**: kasu zuzena (= marka agerikorik gabekoa), aditz pasiboekin erabilia latineko nominatiboaren orde (=subjektuekin), bai eta akusatiboaren eta bokatiboaren orde.
- **aktiboa**: -k marka (-e- junturazkoa sartzen delarik kontsonante baten ondotik), aditz aktiboekin erabilia latineko nominatiboaren orde (=subjektuekin).
- **datiboa**: -i marka (-r junturazkoa sartzen delarik bokal baten ondotik).
- **negatiboa**: -ik marka (-r junturazkoa sartzen delarik bokal baten ondotik), euskal nominatiboaren orde agertzen da, dudazko, galderazko eta ezezko aditzekin.

Larramendi:

**Nominatiboa**: -a, -ák markak singularrean, -ak pluralean. Bai eta galdeka edo ezezka aritzean -ík (konsonante baten ondotik), eta -rík (bokal baten ondotik).

**Akusatiboa**: -á marka singularrean, -ak pluralean (nominatiboaren irudikoak). Bai eta galdeka edo ezezka aritzean -ík (konsonante baten ondotik), eta -rík (bokal baten ondotik).

<sup>11</sup> Micoleta ([1653]/1880:30) eta Urte ([1712]/1896-1900:57) ez ditut aipatzen, baina erran gabe doa latineko kasu zerranda harturik euskarazko ordaineko markak ematen zituztela, ahal bezala, eta arras modu nahasian Urtek. Haien jokabidea oro-har Larramendirena ere izanen da. Harrieten aurkezpenean (1741) guziz besteena ez bezalakoa da, nominatibo hitza arras molde berezi batean erabiltzen baitzuen (kasu guztiak harentzat *nominativoak* edo *izgendatcen direnac* ziren, eta beraz ez zen *nominativo* kasu baten deitura) eta paradigmak osoki, izenik eta bereizkuntzarik erabili gabe eskaintzen zituen (gure ergatiboa eta absolutiboa elkarren parean emanez haatik, kasu beraren bi forma balira bezala. ik. 18 oharra).

**Datiboa:** -arí, -aréntzat markak singularrean; -ai eta -entzat pluralean

Bestalde Larramendik genitiboaren eta ablatiboaren ondoan, kasu bokatiboa ere zerrendatzen zuen:

**Bokatiboa:** -á marka singularrean, -ák pluralean (nominatiboaren irudikoak); (batzuetan á edo ó aurretik emana delarik)<sup>12</sup>.

Ikus daitekeenaz, ez da dudarik pondu horretan ere Oihenartek oso azterkabide aitzinatua erabili zuela. Astarloak eta Darrigolek beren lanak egin artean<sup>13</sup>, beste nehor ez baitzaio kasu aktiboari —kasu berezi gisa— ohartuko.

#### 4. KASU ADBERBIALAK

Deklinabideko kasuen zerrenda egiteko tenorean, latin ereduak oso zedarrí hertsia ezartzen ditu euskarari egokitu nahi izanez gero. Larramendiren jokabidea hor dugu horren lekuko. Gorago ikusi bezala hark latinaren ereduá ontzat eman baitzuen, zer egiten zuen euskaran kausitzen zituen kasuen iduriko beste marka guzietan? Bada, nominatiboa eta datiboarekin aurkitu zuen aterabideá zabaldu zuen Larramendik.

Nominatiboa, gaurko kasu absolutu eta ergatiboak, eta datiboa gaurko kasu datibo eta destinatiboak eman zituen bezala, genitiboa gaurko genitibo edutezkoa eta instrumentala jarri zituen, eta ablatiboa, berriz, sozietiboa, motibatiboa, inesiboa eta, uste gabetarik, **gabe** ere (ablatibo kasu hau soberakin kutxa moduan zerabilen antza denaz, gelditzen zitzaizkionak hor sakatzen zituelarik). Jokabide bertsua hartu zuen Urtek bere aldetik ere lehenxeago.

Oihenarten jokabideari so egiten zaiolarik, anitzez zuhurkiago eta egokiago ari izan zela ohart gaitezke, nahiz Larramendik bezala 6 kasutako paradigma euskararentzat gorde zuen (6 artikulugabea, 5 artikuludun, kasu negatiborik ez denaz gero orduan haren paradigmatan).

Jakinik, formari lehentasuna emanez, Oihenartek kasu bakoitzarentzat marka bakarra onartzen zuela, galdera berehala gogora heldu zaigu: nola egin zuen beste kasu marken aurkezteko? Isilean utzi ote zituen? Ez, baina, kasu sistemaren ondoan beste morfema sail mota bat sortu zuen (bigarren argitalpenean baizik ez dena agertzen): posposizio bereiz-ezinezkoen edo bereizgaitzen saila.

1656.eko argitalpenean sartu parafo berrietarik bat *De Indeclinabilibus* deitu zuen Oihenartek, hartan adverbioak, konjunkzioak eta zirkumposizioak, aurkeztu nahi zituen.

<sup>12</sup> Larramendiren arabera, a edo o interjekzio moduan erabiliak direlarik, á gizon! edo ó mutil gaiztoa! (1729: 5) bezalako hizkuntzetan bezala, bokatiboaren artikulua dira (1729: 3).

<sup>13</sup> Astarloak (1883) paziente-agente-recipiente bereizketaren arabera aurkezten zituen kasu gramatikalak; (haatik partitiboa ez zen kasua harentzat baina pazientearen mugagabeko forma). Astarloak pondu horri buruz finkatu azterkabideak arras argiki aurkezten ditu Alberdik (1989).

Hona zer sailkapen egin zuen elementu horien artean.

Lehenik bereizkorrak (*separabiles*) eta bereiz-ezinak (*inseparabiles*) sailkatu zituen.

Deklina-ezinezko bereizkorren artean, berezko adberbioak eta konjunkzioak ematen zituen: **gaizki, geurz, baina, edo, ...** ; bai eta posposizio bakar batzuk ere: **beitan, landan, ...** alabaina Oihenartek ohartarazten zuen posposizio gehienak euskaraz lotu beharrekoak direla.

Bereiz-ezinen artean, beste sailkapen bat egin zuen;

- alde batetik ematen zituen adberbio edo konjunkzio gisa kontsideratzen zituen ondoko atzizki hauek:

-**ean, -no, -z, -la, -larik, -lakoz;**

- eta beste aldetik, posposiziotzat hartzen zituen beste hauek:

- Inpertsionalak: **-ra, -tik, -ko** (singularrean), eta **-tara, -tarik, -tako** (pluralean, eta izenordainekin)<sup>14</sup>;

- Pertsionalak: **gana, ganik**<sup>15</sup>.

Taula batean laburbildurik honela gelditzen da Oihenarten sailkapen hori:

#### Deklina-ezinezkoak

<b>bereizkorrak</b>	<b>bereiz-ezinezkoak</b>											
<i>adberbioak: gaizki, geurz, ..</i>	<i>adberbioak &amp; konjunkzioak: ean, no, z, larik, lakoz</i>											
<i>konjunkzioak: baina, edo, ...</i>	<table style="border: none;"> <tr> <td rowspan="3" style="font-size: 3em; vertical-align: middle; padding-right: 10px;">}</td> <td style="padding-right: 10px;"><i>posposizioak</i></td> <td style="padding-right: 10px;">{</td> <td style="padding-right: 10px;"><i>sg.: ra, tik, ko</i></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td style="padding-right: 10px;"><i>pl.: tara, tarik, tako</i></td> </tr> <tr> <td></td> <td style="padding-right: 10px;"><i>pertsionalak: gana, ganik</i></td> <td></td> <td></td> </tr> </table>	}	<i>posposizioak</i>	{	<i>sg.: ra, tik, ko</i>			<i>pl.: tara, tarik, tako</i>		<i>pertsionalak: gana, ganik</i>		
}	<i>posposizioak</i>		{	<i>sg.: ra, tik, ko</i>								
				<i>pl.: tara, tarik, tako</i>								
		<i>pertsionalak: gana, ganik</i>										

Ageri da posposizio bereizgaitzen saila, deklinabideko kasuen artean sartu nahi izan ez zituen gaurko toki-denborazko kasuentzat moldatu zuela bereziki Oihenartek (badirudi, haatik, **-eki** sozietiboaren marka ere sail berean sartu gogo zuela, nahiz aparte aipatzen duen azken hau).

Ohargarria da inesiboa ez dela agertzen zerrenda horretan. Arrazoina ere ageri da. Oihenartek ez zituen posposizio gisa kontsideratzen adizkera jokatupei lotzen diren atzizkiak (**-larik, -lakotz, etab...**). Aditzondo edo konjunkziotzat hartzen zituen. Horregatik, **-ean** ere molde horretakoa izanki, beste atzizki horiekin batean sailkatu zuen egungo inesiboaren kasu marka.

<sup>14</sup> -(ta)ko erran-nahi helburuzkoan hartzen du (lat. *pro*). Ez genitibo bezala.

<sup>15</sup> Pertsionalak deitzen ditu pertson izenei (eta izen ordainei) lotzen zaizkien atzizkiak. Haren adibideetan pertson izen horiek beti izen bereziak dira, eta badirudi hola ulertzen zuela haientzat singular / plural oposaketarik ez baitu aipatzen, inpertsionalentzat, aitzitik, egiten duelarik.



Gora-behera horren gatik, ez da dudarik oro-har Oihenarten posposizioen saila, egungo toki-denborazko kasuei dagokiela.

Zergatik Oihenartek nahiago izan zuen hola jokatu, kasuen zerrenda luzatu baino? Latinaren sei kasutako zerrendaren ereduarengatik ote? Beharbada, baina ez da batere segur, kasu aktiboaren eta kasu partitiboaren sartzeko, eta berdin akusatiboaren eta bokatiboaren kentzeko ez baitzen uzkur egon. Beraz pentsa daiteke horren beharra ikusiz gero latinaren kasuen zerrenda, laburtuz egin zuen bezala, luzatuz ere alda zezakeela.

Beste esplikabide bat bada, itxura gehiago duena ene aburuz. Oihenartek formari lehentasuna ematen ziola ikusi baitugu, gogoan har dezagun tokidenborazko kasuen singularreko paradigmaren artikulurik ez dela agerian agertzen, hala nola ikus baitaiteke Oihenartek, posposizio gisa aurkezturik, marka huentzat ematen dituen singularreko formei so eginez. Alabaina singularreko paradigma hori oinarritzat hartzen bada, oso kontraste agerikoa da tokidenborazko eta beste kasuen artean: batzuek *-a* badute, besteek ez dute. Bestalde pluralean posposizio direlakoek erakusten duten *-ta* morfema ere ez da agertzen gaineratiko kasuen marketan. Badirudi, Oihenartek, hori ikusirik, bi elementu motak berezirik atxiki nahiago izan zituela. Haren azterkabidea ez litzateke, beraz, latinaren ereduaren eraginaren ondorioa, baina formari lehentasunaren emateko haren joerarena.

Ohargarri da Oihenarten jokabide honen oihartzun zerbait aurkituko dugula gero euskal gramatikagintzan, kasu-posposizio bikotearen barnean halako zein gehiagoka bat gertatuko baita luzaz. Astarloaren lanetan ere, *Discursos* delakoetan bereziki, kausitzen da ondorioetan bederen Oihenartenarekin aski hurbil den bereizkuntza. Astarloak, alabaina, hogeigarren mendeko ideia moderno batzuen intuizioaz baliaturik, hizkuntzetan bi erlazio mota desberdinu behar zirela zioen: deklinabidearen edo artikulua bidez adieraziak ziren lehen mailako erlazioak alde batetik (egungo moldean erranik, zuzenean edo zeiharka erlazio gramatikalei dagozkienak, genitiboa barne), eta zirkumposizioen bidez adieraziak ziren bigarren mailako erlazioak (gaurko eran, erlazio adberbialeki dagozkienak) bestetik. Deklinabidearen kontzeptua (gure hitzetan errateko) bakarrik molde mugatu batean baliatzen zuen beraz<sup>16</sup>. Gaineratikoak —nolabait ezin zerrendatuzkoak— posposizio gisa kontsideratzen zituen, Oihenartek bezala. Ez du iduri Astarloak mintzairaren morfema-azterketa sistematiko baten ondotik plazaratu zuen ideia hori, baina gramatikari filosofoen bidetik ibiliz, kausa mota desberdinei buruz filosofia tradizioan agertzen ziren kontzeptuak bere gisara hizkuntza kategorietara aplikatuz.

<sup>16</sup> Astarloak deklinabidearen kontzeptua artikulurik ez duten hizkuntzetako atxekitzen zuen. Beraz harentzat euskarak ez zuen deklinabiderik artikulua bazituenez gero. Mugagabeko paradigmaren ere euskarak artikulua mugatu gabeak bazituela zioen; partitiboa, hain zuzen, artikulua pazientearen harentzat (1883:677).

Naski —apologialariaren partetik ez zitekeen besterik igurika—, Astarloak euskarari aurkitzen zituen hobekienik adierazirik molde orokor batean finkatu zituen kategoriak. Eta horrela lehen mailako erlazioen zerrendatzeko tenorean lau sailkatu zituen: pazientea, agentea, hartzailea eta jabea (erran nahi baitu, gutik uste zukeen tokian, hogeita hamar urte honetan kasu-semantikaren arabera moldatu teoria berri guzietan beti kausitzen diren oinarritzko kasuak!). Horrela, arras beste oinarri batetik abiatu Oihenartek aurkitu zituen kasuak (instrumentala gabe, lehen erran bezala) eman zituen Astarloak ere<sup>17</sup>.

Ikusten den bezala, dela marken formagatik (Oihenart), dela latinaren ereduari jarraikitzeagatik (Micoleta, Urte, Larramendi), edo arrazoi kontzeptua-lengatik (Astarloa), 19. mendea arte ez dira zerrendatzen euskararen kasu sisteman toki denborazkoak bezalako kasu adberbialak. Urrats hori egiten duen lehenbizikoa, Beauzée-ren (1767) zenbait kritika kontuan harturik iduriz, Darrigol (1827) izanen da<sup>18</sup>.

Hona beraz labur bildurik euskal deklinabidearentzat Oihenartek eskaintzen zituen paradigmak (hark eman itxuran eta deituekin):

Artikulugabea	Artikuluarekilakoa	
	<i>Singularrean</i>	<i>Pluralean</i>
<i>Nominatiboa:</i> gizon	gizon-a	gizon-ak
<i>Aktiboa:</i> gizonek	gizon-ak	gizon-ae
<i>Negatiboa:</i> gizonik		
<i>Genitiboa:</i> gizonen	gizon-aren	gizon-aen
<i>Datiboa:</i> gizoni	gizon-ari <sup>19</sup>	gizon-aei
<i>Ablatiboa:</i> gizonez	gizon-az	gizon-aez

Ohartzen ahal da irakurtzailea artikulurik pluralaren paradigmaren ohi ez bezalako modu batean ematen duela Oihenartek ondarkia, kasu marka agerikoa duten kasuetan: *-ae-*. Hain zuzen ere, pondu horretan ere kausitzen dugu Oihenarten zorroztasunaren beste agerpen bat. Alabaina Oihenartek ongi adierazten du *-ae-* hori ez dela ez entzuten, ez idazten (pluraleko formak *-ek* (aktiboan) *-er* edo *-ei* (datiboan) eta *-ez* (ablatiboan) direla baitio bestalde), eta beraz azterketaren ondorioz sortzen zuen forma eraikia zela.

<sup>17</sup> Artikuluaz eta kasu markaz aski kontzepzio nahasia izanagatik (Larramendiren eraginetik ez zen atera pondu horretan), Astarloak ere, Oihenartek bezala, guziz zorrozki bereizten zituen ondarkiaren barneko elementuak.

<sup>18</sup> Harrietek (1741) ere kasu adberbialak agertarazten zituen bere paradigmaren 11 kasu bereizten zituen. Hona adibidez *on* deklinagaitzat harturik ematen zituen singularreko formak. 1. *on*, *ona*, *onak*. 2. *onaren* edo *oneko*. 3. *onaganik* edo *onetik*. 4. *onik*. 5. *onari*. 6. *onagana* edo *onera*. 7. *onabaitan* edo *onean*. 8. *onaz*. 9. *onarekin*. 10. *onarentzat* edo *ontzat*. 11. *onaganaino* edo *oneraino* (1741:457)

<sup>19</sup> Artikuluarekilako datibo singularra (*-ari*) ez da agertzen 1656. eko argitaralpenen bai ordean 1638. ekoan. Ez ematea errakuntza baten ondorioa zatekeen.

«Hala ere ohartarazi behar da A bokala, pluraleko kasu zeiharkako guzietan aitzinazkenekoa, euskaldun akitaniarren artean ondotik jarraikitzen zaion E bokalarekin diptongo batean hala lotzen dela, non haren soinua ez baita batere entzuten, eta E bokalaren soinua baizik ez baita nabari, luze edo geminaturik : horrela **guicon-aec** errateko orde **guicon-ee** edo **guiconéc**, ahozkatzen da kasu zuzen (sic) pluralekoan, eta gauza bera gaineratiko kasuetan numero berean. (1638:60)»

Berriz ere ikusten dugu Oihenartek pluraleko ondarki artikuludunez egin azterketa morfematikoa zein zehatza (eta modernoa) zen. Artikulua bazela oharturik, singularrean eta pluralean dituen itxura desberdinetan morfema bakoitzaren marka ber-erakitzen du (-a-: artikulua; -e-: plurala), a+e erregela morfo-fonologikoaren ondorioz e soinua baizik, luzaturik, entzuten ez bada ere<sup>20</sup>. Guziz ikuspegi aurreratua erakutsi zuen, beraz, pondu horretan ere.

## 5. AZKEN HITZA

Deklinabidearen inguruko azterketak 17. et 18. mendeetan nola egin ziren ikusirik, eta Oihenarten ekarpena ingurumen horren barnean kokaturik, uste dut agerian gelditu den Zuberoako herri gizona egiazko aitzindaria izan zela euskal gramatikagintzan, bai kronologian, eta bai kontzeptugintzan ere. Pondu zenbaitetan kasik 20. mendea igurikatu beharko da hark argi eta garbi finkatu zenbait azterbide onartuak izan daitezzen. Adibidez, artikulua azterketa dela-eta, aski da, Ithurryk Dogsonekin *Grammaire basque* famatu hura *Eskualduna* astekarian hostoka argitaratzen hasi zirenean pondu horren gainean izan zuen eztabaidaren ikustea (ikus 1894.08.17ko zb.), Oihenarten ideiak zein aurreratuak ziren ohartzeko. Artikulu pluralarekilako ondarkien haren azterketak ere, uste ez bezalako modernatasuna du (-ek, -ei, -en, -ez formak, -a+e- diptongo *eraikitik* sortarazten baititu), eta Gavelen lanetan aurkituko dugu osaturik gero, bai eta ondotik Lafon eta Mitxelenaren lanetan ere. Halaber kasu gramatikalen haren aurkezpena kasik hitz bat ere aldatu gabe eman daiteke Euskaltzaindiak egiten ari duen gramatikan... Orrialde gutiren barne nekez hoberik egin zitekeen 17. mendeko lehen partean, nahiz ikusi dugun bezala beste pondu batzuetan huts egin zuen: ez zen ohartu, adibidez, euskaran, izen sintagmak, eta ez izenak eta izenondoak, deklinatzen direla, horren ondorioz aski esplikabide bihurriak (jeinutsuak ere, zergatik ez aitor, mugatugabea singularrean nahiz pluralean komunzta daitekeelako ideia baliaturik) eman behar izan baitzituen datuen azaltzeko. Toki-denborazko kasuen azterketarentzat ere, ezin erran daiteke hark proposatu bidea (numeroa dakarten posposizio

<sup>20</sup> Kontuan har bedi zubereberaz akzentu tonikoa pluraleko paradigma horretan —e— horren gainean agertzen dela kasu guzietan.

gisa kontsideratzea) egokiena dela, nahiz horretan ere arazoa bera ongi ikusi zuten, ez baita dudarik kasu horiei dagozkien paradigmatik formaren aldetik besteetarik desberdinak diren, eta hori, hain zuzen ere, Oihenartek azpimarkatu bi ponduetan: artikulua ez delako agertzen singularrean (oihan-etik, mendi-ra, liburu-ko), eta -ta- morfema obligatuzki agertu behar delako pluralean (oihan-etarik, mendi-etara, liburu-etako).

## BIBLIOGRAFIA

\* Kako zuzenen artean emanikako urteak (adib. [1803] ) idazlana egin zen urtea ematen du, gako borobilen artekoak, usaian bezala, argitara emana izan zen urtea.

ALBERDI, J. (1989). «Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiara-ko», ASJU 23-1, 115-132.

ASTARLOA, P. [<1803>/(1883)]. *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la euskera o bascuense*, Bilbao: Velasco.

BEAUZÉE, N. (1767). *Grammaire générale ou exposition raisonnée des éléments nécessaires du langage, pour servir de fondement à l'étude de toutes les langues*, Paris.

CARO BAROJA, J. (1972). *Los Vascos y la historia a través de Garibay*, bigarren argitalpena, Donostia: Txertoa.

DARRIGOL, J.C. (1827). *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Baiona; fac simileko argitalpena, 1979, Tolosa (Frantzia): Eche.

ETCHEBERRI (Sarakoa) [1712]/(1972). *Lan hautatuak*, Donostia: Lur.

FILZ, (1669). *Méthode courte et facile pour apprendre les langue latine et française*, argitalpen berria, Paris: Jean Baptiste Coignard baitan.

GARATE, J. (1933). *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbo.

GARIBAY, E. (1571) *Compendio historial ...*, Amberes, 4 lib.; 2. argitalpenaren (1628) facsimileko argitalpena, 1988, Leioa.

GÓMEZ, R. (1991). «Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia», ASJU 25-3, 783-796.

GOYENETCHE, J. (1992). *Analyse critique de l'historiographie basque du XVIe siècle au XIXe siècle*, Doktore tesia, Université de Pau et des Pays de l'Adour.

HARRIET, M. (1741) *Grammatica escuaraz eta francesez composatua ...*, Baiona: Fauvet baitan.

LARRAMENDI, M. de - , (1729). *El Imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanca. Fac simileko argitalpena, 1979, Donostia: Hordago.

LARRE, J. M. (1992). «Arnaud Oihenart et la Notitia utriusque Vasconia», in *Bulletin du Musée basque*, 133, 9-30.

LÉCLUSE, f. (1826). *Manuel de la langue basque*, Tolosa (Frantzia); fac similez egin argitalpena, J. A. Lakarraren iruzkinekin, ASJU, XXI-3, 1987, 833-916.

MICHELENA, L. (1973). «Guillaume de Humboldt et la langue basque», in *Lingua e Stile*, VIII, pp. 107-125.

MICOLETA, R. [1653]/(1880). *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, E.S. Dogsonek paratu argitalpena 1897, Sevilla.

OIHENART, A. (1638). *Noticia Vtriusque Vasconia, tum Iberica quam Aquitanica ...* Paris; bigarren argitalpena: 1656; 1656. eko argitalpenaren espaino-lezko itzulpena, J. Gorosterazuren eskutik in RIEV, separata, 1929.

OIHENART, A. [1665]/(1967). *L'art poétique basque*, P. Lafittek paratu argitalpena, Baiona: *Gure Herria* (separata).

OYHARÇABAL, B. (1989). «Les travaux de grammaire basque avant Larra-mendi (1729)», ASJU, 23-1, 59-73.

POUVREAU, S. [1660] (1881). Ikus Vinson (1881).

SAROIHANDY, J. (1923). «Doctrinal grammatical de Oihenart», *Tercer Congreso de Estudios Vascos Lengua y Enseñanza*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 41-46.

TOVAR, A. 1980. *Mitología e ideología sobre de la lengua vasca*, Madril: Alianza.

UNAMUNO, M. de - , [1884]/(1974). «Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca», Doktore tesia (Madril), in *La raza vasca y el vascuence*, Madril: Espasa-Calpe, 11-52.

URTE, P. [1712] (1896-1900). *Grammaire cantabrique basque*, W. Webster-ek paratu argitalpena, *Bulletin de la Société Ramond*, Bagnères de Bigorre.

VINSON, J. (1881). «Les premiers grammairiens basques. Notes de Sylvain Pouvreau», *Revue de linguistique et de philosophie comparée*, 14, 109-119.

VOLTOIRE (1620) *L'interprète ou Traduction du François, Espagnol et Basque*, Lyon: A. Rouyer baitan.

ZUBIAUR, J.R. (1990). *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Doktore tesia (Deustuko Unibertsitatea); Donostia: Mundaiz.